

2030

Bi urte joan dira. Lehen urtea, zailantzi. Bigarrena, sendoago; udazkenetik hona, bereziki. Lauko gobernu nafarra errotu ahala, nerbios-tuago ageri da oposizioa, garrasika, gezurka, irainka, mehatxuka, alderdi sozialista barne. Nafarroako sozialista gehien-gehienak Pedro Sanchezen aldekoak dira. Atera kontuak. Oposizioaren jarrera kezagarria izanik ere, are kezagarriagoa da Iruñeko udal gobernu taldean gertatu berri dena, horrek bai, horrek erdi-erditik higatu dezakeen hiriburuko aldaketa, eta horren ondorioz, Nafarroakoa ere bai. Ez da batere harritzekoa batzuen eta besteen artean ezberdintasunak izatea eta gai guztietan iritzi-kide ez izatea. Gobernuan badute batzorde bat eztabaidak bideratzeko. Iruñeko Udalean ez, ordea. Horrela, Udala agintzen ari diren lau indarretatik bik –Izquierda/Ezkerrak eta Aranzadik– ohar bat igorri zuten lehengoan hedabideetara gobernu taldea krisiak jota zegoela iragartzeko, eta bazirudien prest zeudela lauen arteko ituna hausteko. Biharamunean, ordea, krisirik ez zegoela erran zuten. To eta no! Aspaldi errana eta frogatua da giro mikaztuak, elkarren arteko lehiak, ezin ikusiek eta azpikeriek ez dutela atarramendu onik ekartzen. Gainera, Iruñean



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA ETA KAZETARIA

Legealdia erdira iritsi den honetan, Nafarroako Gobernuan (eta udaletan ere) den-denak adi-adi daude ea zer ekar dezakeen Nafarroara EAJk PPrekin egindako akordioak

ere ari da aldaketa bidea urratzen, eta hori begi-bistakoa da.

Bizkitartean, legealdia erdira iritsi den honetan, Nafarroako Gobernuan (eta udaletan ere) den-denak adi-adi daude ea zer ekar dezakeen Nafarroara

EAJk PPrekin egindako akordioak. Sekulakoak eta bi entzun ditugu akordioaren aurka estatuko hedabide eta politikari gehien artean. EAEko ordezkari politikari batzuk ere sutsu mintzatu dira horren aurka; mikroen aitzinean, behinik behin. Eta herritar sumindu batzuek ere gartsu jo dute batzokien aurka. Nafarroan, ordea, bertzelakoa da ikuspegia. UPN, jakina, akordioaren bekaitz da, sekulan horrelakorik aitorituko ez badu ere, inoiz ere ez baitu gisakorik erdietsi Madrilen Nafarroarako. Eta aldaketa aldeko indarren ordezkariak diote ez legokeela batere gaizki Nafarroak ere diru gehiago baliatu ahal izatea, aldaketa bera errotzeko, sos alde hori arnasbidea izanen baita Gobernuarentzat, bai eta udalarentzat ere. Geroa Baik ozenki aditzera eman du hori; berteze hiru indarrek, aldiz, ahapeka, zer gerta ere, ez baita itxurosoa han gauza bat erratea, eta hemen, kontrakoa. Izan ere, kontatu dituzten gai guztiak hitzartu dituzte EAJk eta PPK beren akordioan, eta uste denez, kontatu ez dituztenak ere bai. Hau da, bertzelako gaiak ere izan dira hizpide eta bertzelako kontuak ere hitzartu omen dira; tartean, Nafarroarekin zerikusia duten gauzak, datozen asteotan jakinen dugun bezala. ■

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

20 urtez euskal taupada

Maiatzak 27 larunbata 12:00etan

Zuzeneko emanaldia

Done Bikendi kalean, Kafe Antzokiaren aurrean

bilbohiria.eus